Azken hamarkadan hizkuntzen alorra dezente aldatu da eta euskararena ez da salbuespen bat izan; dena den, egungo kezka erabilera da. Egoera aztertzeko esplorazio-ikerketa bat egin da eta bertan, EAEko bi ikastetxetako 15-16 urteko gazteen errealitatea aztertu da, fokua motibazioan jarri delarik. Hortaz, ikerketaren xedea gazteek euskara erabiltzeko edo ez erabiltzeko dituzten arrazoiak identifikatzea izan da. Proiektu honetan errealitatea kontatzearen arduradunak gazteak izan dira, eurei eman zaie hitz egiteko txanda eta mikrofonoa. Proiektuko datuak galdetegi, focus-group eta elkarrizketa bidez eskuratu dira. Emaitzak emankorrak izan dira eta ikusi ahal izan da gazteen jarrerak gizarteko aurreiritzi eta arauek baldintzatzen dituztela. Aitorpen gogorrak egin dituzte, non, aukera eza, derrigortasuna, menpekotasun-sentsazioa, hizkuntza erabiltzeko lotsa edo erruduntasuna aipatu dituzten, besteak beste.

Zer aztertu da ikerketa honetan ?

# EUSKARAREN ERABILERAREN ALDEKO MOTIBAZIOAK GAZTEENGAN

LIBE ALVAREZ IRUGUENPAGATE

DERRIGORREZKOA DELAKO

EROSO NAGOELAKO

JENDEAK EZ ULERTZEKO

LANA LORTZEKO

"NEURE" HIZKUNTZA DELAKO

NORBAITEK EUSKARAZ EGIN DIDALAKO

GUK EUSKARAZ

AHALEGIN EXTRA EGIN BEHAR DELAKO

ZAILA DELAKO

"NORMALENA" GAZTELANIA ERABILTZEA DELAKO

NIRE ERREFERENTEEK EZ DUTELAKO EUSKARA ERABILTZEN

AUKERA EZAGATIK

JENDEAK GAZTELANIAZ ERANTZUTEN DUELAKO

ZUK ZERGATIK EZ?

